



TICHLA HERRIARENTZAT BI KONTU KORRONTE

Saharako herriko familia behartsuenei dirua bideratu nahi die Udalak; Kutxan eta Euskadiko Kutxan ireki dituzte 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-05-13

VIIURTEA 1.670.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Munduan zehar bidaiatuz' bidaien astea antolatu dute

IBARRA Bost ikus-entzunezko eta erakusketa bat ikusteko aukera izango da hilaren 25era arte 6



Bi udaleko ordezkariak eta bi herrietako sukaldariak izan ziren atzo aurkezpenean; menua 40 eurotan jarri dute. I.T.



A. IMAZ

MARZE SATRUSTEGI LAB-EN ORDEZKARIA SARRIOPAPEL ENPRESAN

«Egun hau amaiera bat baino, hasiera bat izatea espero dezagun»

LEITZA Maiatzaren 21eko Greba Orokorren inguruko batzarra egingo dute gaur lantegian 7

Garmendiaren 'Obra Osoak'-en azken lana argitaratu dute

TOLOSA Eusko Ikaskuntzak kaleratu du; bihar, 19:30ean, aurkeztuko dute udaletxean 3

BISIGUA TOLOSARANTZ ETA ONDOREN... TXULETA ORIORUNTZ

TOLOSA Txinparta elkartearen eta Tolosa Gourmeten ekimenez, Orio Estilora Bisiguaren Festa antolatu dute maiatzaren 30 eta 31rako 2

Etzi ekingo diote Kultur Asteari Albizturren, belazeak apainduz 4

Transportes Lakunza Nazional Mailara igo da 4



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa
www.inmakuladatolosa.com
943673629

Goi maila

HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

AURREMATRIKULAK
EKAINAK 1-12
BITARTEAN

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

ZATOK GU EZAGUTZERA

Bisigua hona eta txuleta hara

Gastronomia » Txinparta elkarteak eta Tolosa Gourmet ekimenak antolatuta, Orio Estilora Bisiguaren Festa izango da maiatzaren 30 eta 31n.

INIGO TERRADILLOS

Tolosa Gourmet ekimenaren baitan, festa berria izango da Tolosan hil honen amaieran, Orio Estilora Bisiguaren Festa, hain zuzen ere. Festa berezi hau egitearen ideia Txinparta elkartearena izan da, eta Tolosa Gourmetekin batera antolatu du. Gisa honetako gainerako moduan, Zerkausiak hartuko du festa hilaren 30ean eta 31n, jatetxe erraldoi bilakatuko delarik beste behin, baina kasu honetan, «Orio estilora bisigu menu edo batez gozatzeko, prezio merkean».

Tolosa Orio estilora gerturatzearen arrazoia bi herrien arteko erlazioan datzala azaldu zuten atzo eginiko aurkezpenean Jokin Bildarratz Tolosako alkateak. «Tolosak eta Oriok desberdintasun handiak dituzte, bata barrualdeko herria baita, eta bestea, berriz, kostakoa, eta gastronomian ere bakoitzak bere berezitasunak ditu. Baina desberdintasun horiek, era berean, elkartu ere egiten gaituzte, osagarri dira, nolabait». Tolosako alkateak Txinparta elkarteek ekimen honetan izan duten ardura eskertu zuen, «beraiek izan baitira ideia gauzatzeko arduratu direnak», eta elkarte gastronomikoen orokorrean «herrian egiten duten ekarpena» ere goraipatu zuen.

Bi herriek gastronomian dituzten berezitasunak trukatzeko da festa honen funtsa, izan ere, Tolo-

san Bisiguaren Festa egingo den bezala, Oriora ere emango dute Txuleta Festa: «Luxuzko aukera da batzen gaituzten elementuak elkarren artean trukatzeko, kasu honetan gastronomiarekin egingo dugun bezala», gaineratu zuen Bildarratzek.

Bestalde, Jon Redondo Orioko alkateak Tolosa eta Orioren artean beti izan dela erlazio ona azpimarratu zuen: «kasu honetan erlazio on hori baliatu eta elkarrekin ekimen hau egitea erabaki genuen; ea luzaroan jarraitzen dugun horrelakoak egiten bien artean».

«Goi mailako sukaldariak»

«Bisigu erretegi onenen sorlekua» da Orio, eta bere parrillak eta beren plater izarraren kalitatea ezagunak dira herritik kanpo. Bisiguaren Festan Euskal Herriko «hiru bisigu-erretzaile nagusiak» izango dira Tolosan: Joxe Mari jatetxeko Andoni Manterola, Katxiña jatetxeko Jose Miguel Zendoia eta Xixario jatetxeko Luis Mari Uranga.

Andoni Manterola arraina parrillan prestatzen tradizio handia duen familiatik dator. Bere aita zenak, Joxe Mari Manterolak, 1957. urtean ireki zuen jatetxea, parrillero lanak eginez eta haren emaztea sukaldetan aritzen zen neskame baten laguntzarekin. Aita oso gazterik hil zitzairen eta semeek hartu zuten jatetxearen ardura. Andoni 13 urterekin hasi zen lanean bertan



Jon Redondo Orioko alkatea eta Jokin Bildarratz Tolosakoa, atzo, ekimenaren aurkezpenean. IT.

eta, 20 urte zituela, bere ardurapean hartu zuen jatetxea.

Joxe Miguel Zendoiak 2000. urtean, Orion egindako Bisigua Parrillan txapelketa irabazi zuen. 1979ko ekainaren 26an hasi zen Katxiñan lanean, urte horretan ireki baitzituzten jatetxeko atak. Etxeko espezialitatea parrillan prestatuturiko arrinak dira.

Luis Mari Urangak, Ramon anaiarekin batera, errelebu hartu zion 1986. urtean Xixario Uranga aita zenari, jatetxea, hark ireki baitzuen 1963an. Aspaldiko parrillero familia da, tradizio handikoa. Gaur egun Orioko erdialdean dagoen jatetxerik ezagunenetakoa da.

40 euroren truke gozatu ahalko da otorduez, eta Tolosaldea Tour bulegoan eman ahalko da izena.

» DATUAK

- **Ekimena.** Orio Estilora Bisiguaren Festa.
- **Egunak.** Larunbatean, maiatzaren 30ean, afaria (20:30etik 22:00etara) eta igandean, maiatzaren 31n, bazkaria (13:30etik 15:00etara).
- **Lekua.** Zerkausia.
- **Menua.** Antxoak gatzetan, tomate entsalada hegaluzearekin, arrain pastela, bisigua parrilan eta *bixigoxo* postrea. Heras Cordon ardoa, Getariako txakolina, Irigoien sagardoa, Insalu ura eta Zabala kafea.
- **Prezioa.** 40 euro.
- **Izen-ematea.** Tolosaldea Tour bulegoan, 943 69 74 13ra deituta, edo_tour@tolosaldea-ra.idatziz.

» Aiz-Orratz elkartearen urteurrenarekin batera

Bisiguaren Festak, gainera, Aiz-Orratz elkartearen 75. urteurrenarekin ekitaldiekin egiten du bat. Izan ere, maiatzaren 31n egitarau oparora antolatu dute elkarteek. Baretik, estropadak izango dira, Orio eta TAKen artean. Ondoren, Emendek eta Aiz-Orratz elkartearen arteko desafioa izango da, garai batean arraunean ibilitako bazkideekin. Azkenik, arraunaren ostean, Zerkausian, omenaldia egingo diete bazkalorduan Ramon Amonnarrizari, Aiz Orratz elkartearen arrauna sartu zuen lehen bazkideari, eta Altxerriari, Orioko patriolari, hainbat bandera lortu zituenari, Tolosara etortzeagatik arraunean erakustera.

Mendebaldeko Sahararen egoera eta irtenbide politikoa hizpide

Elkartasuna » Maiatza borrokan egitarauaren baitan, hitzaldia izango da gaur, Kultur Etxean, Txente Rekondorekin, 19:30ean.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Sahararekin elkarteak hilabete honetarako antolatu duen Maiatza Borrokan egitarauaren baitan, GAINeko (Nazioarteko Gaien Azterketarako Euskal Kabi-

netea) kide den Txente Rekondoren hitzaldiaren txanda izango da gaurkoan. *Mendebaldeko Sahararen egoera eta irtenbide politikoa* izango da hitzaldiaren izenburua, eta hau 19:30ean hasiko da, Tolosako Kultur Etxean.

Lurraldeen arteko gatazken inguruan, antzekotasuna aurkitzen saiatzen garen arren, «prozesu guztiak desberdinak direla», dio Rekondok, «baina hortik hasita, errealtate desberdin horietara heltzeko garaian antzekotasun puntuak aurkitzea beharrezkoa zaigu bereziki akats berdinak ez egiteko».

Gaurko ekitaldiari dagokionez, lehendabizi ikus-entzunezko bat jarriko dute gaia hobeto ulertzeko. Ondoren, Txente Rekondok azaldu bezala, «kokapen orokorra egingo dugu, Mendebaldeko Sa-



GAIN taldeko kidea, Txente Rekondo. GAIKAIROZ

hararen gatazkaren jatorria nondik nora datorren ikusteko». Hala, gaur egungo egoerara arte aztertuko du gertatu dena, eta negoziazioak zertan diren ere kontatuko du. «Ildo honetatik, hainbat lurralderen jarrera ere aztertuko dugu, hau da, Frantzia esaterako zergatik doan eskutik Marokorekin, esate-

rako». Mendebaldeko Sahararen aberastasunak zergatik dauden Marokoren eskuetan edota Europar Batasunaren hainbat lurralderen eskuetan ere aztertuko du, besteak beste.

Bestalde, egitarauaren hurrengo ekitaldia, ostiralean izango da, Ibarri izango den bertso saioa.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

G Gutunak

Herritarren partaidetza deitzen diote

Herritarren parte-hartzearekin zerikusia duen guztian, gure Udalak ez du aukerarik galtzen erakusteko zein urruti dauden elkarrengandik bere esanak eta bere egin-tzak. Erakutsi ziguten lehendabiziko herri partaidetza motari dekorazio partaidetza deitu genion. Herritarrok garrantzi handiko misio bat geneukan: aukeratu behar genuen Alondegia plazako zoruaren kolorea eta Txapelaren inklinazioa. Geroztik jakin dugu belar pixka bat izango duela eta txapelik ez duela edukiko.

Gero beste parte-hartze mota bat ezagutu genuen: partaidetza mediatiakoa. Parte hartu nahi genuela eta elkarriketa bat eskatzen hamabi hilabete pasa eta gero, World Kafé ponpoxo bat antolatu zuten Zerkausian Herri Partaidetza iruzur. Jardunaldi horretatik ateratako ondorio bat hauxe izan zen: komunikazio bide egonkorrak ireki behar direla aurka dauden taldeekin. Gu oraindik itxoi-tengau.

Turreamendi Egoitzako Gobernu Batzordean herriko elkarteen zenean parte hartuko duten kideak aukeratu behar zirela eta, hirugarren parte-hartze mota ezagutu dugu: partaidetza baldintzatua. Udalaribururatu zaio inongo justifikaziorik gabe, ezin dutela parte hartu administrazioarekin lotura duten pertsonen (funtzionarioak, azpikontratatuak, etab.). Nahiz eta Konstituzioak, Erregimen Lokale-

ko Legeak, Aalborg Gutunak besterik dioen. Hau da, herriko bizitzan herritarren guztien partaidetza bideak erraztu behar direla. Are eta okerrago gainera: Batzorde horretako partaide gehienak (alkatea, zinegotziak eta egoitzako zuzendaria) erabateko lotura dute administrazioarekin.

Kasu honetan ere laugarren partaidetza mota ezagutu dugu: Partaidetza tutelatua. Udalak beste baldintza bat jarri zuen: Alkateak erabakiko zuela zein izango ziren herritarren ordezkariak aipatutako batzordean, eta ez elkarrekin. Hain zuzen, alkateak, irizpide batzuen arabera, egoki jotzen zituen hautagaiak aurkeztuko zizkion Udal Plenoari, umeak edo adimen-desgaituak izango bagina bezala. Aldiz, gaitasuna aitortzen ditute hauteskundeetan euren alde bozkatzeko edota zergak ordaintzeko, gero haietatik beren soldatak eta dieta ederrak ateratzeko. Baldintza honek bazuen, gainera, beste gauza bat larria: Iurreamendiko egoiliarren eta beren familiako ordezkariak beraiek zuzenean hautatzen dituztela, Udalaren tutelarik gabe.

Lan zaila jarri diote sortu berria den Udaleko Herri Partaidetza Batzordeari, Udalak emandako zume hauekin saski itxurosoa egiteko Udaleko Herri Partaidetza jasotzeko, dokumentuan dioten bezala politika publiko eraginkorra gozatzeko eta gure herriko bizitza kalitatea hobetzeko.

Gerontologikoaren aldeko plataforma. Tolosa

Otsabin, arrazakeria eta Tolosako etorkinen gaia jorratuko dute gaur

Gizartea » Maiatza Gorriaren baitan, SOS Arrazakeriakoak izango dira gai honen inguruan hitz egiten, 19:00etan.

ERREDAKZIOA

Sanblasipiko Gazte Asanbladak Maiatza Gorriko ekitaldiekin jarraitzen dute. Hala, joan den astean latinoamerikaren inguruan izan ziren hainbat jardunaldi, eta oraingoan, arrazakeria izango dute hizketagai. Izan ere, hilabete guztian zehar izango dira ekitaldiak.

Gaur 19:00etan, lehen aipatu bezala, arrazakeriaren gaia jorratuko dute Otxabi elkarteak. Horretarako, SOS Arrazakeriako kide bat etorriko da gaiaren inguruan hitz egitera. Bestalde, gaia hona ekarri, Tolosan gazte etorkinekin

izan diren arazoak azalduko dituzte, eta eztabaidarako tartea ere izango da. Bestalde, maiatza bukatu arte ekintza gehiago antolatzen jarraituko dute.

Hitzaldi honen helburua, gaitzazkoekin lotuta, Tolosako herritarren, eta batez ere, gazteen artean kontzientzia piztea da. Memento honetan krisia gora eta krisia behera, beste gauzarik en-tzuten ez dela, Gazte Asanbladatik argi ikusten dute, ezin dutela ezer egin gabe geratu. «Inoiz baino arrazoi gehiagorekin, aurre egin behar diogu, miseria besterik eragiten ez duen sistema kapitalista honi», gaineratzen dute.

Arrazoi hauengatik deia luzatzen diote, Euskal herritar guztiei, hitzaldi hauetan parte har dezaten, «pixkanaka-pixkanaka denok batera, sistema olagarro honen aurkako harresiaren lehen adreilua ezartzeko».



Juan Garmendia Larrañaga antropologoaren azken lana aurkeztuko dute bihar iluntzean, udaletxean. REBEKA CALVO

Juan Garmendiaren 'Obra Osoak'-en azken liburukia argitaratu dute

Kultura » Lehen kaleratutako bildumari beste batzuk gehitu dizkio Eusko Ikaskuntzak; bihar 19:30ean aurkeztuko dute.

ERREDAKZIOA

Juan Garmendia Larrañagaren *Obra Osoak*-en hamargarren eta azken liburukia aurkeztuko du Eusko Ikaskuntzak bihar. Ekitaldia udaletxeko batzar aretoan izango da, 19:30ean. Bertaratzen direnei Juan Garmendia Larrañagaren ikerketa lana laburtzen duen katalogo bat emango diete.

1997an hasi zen Juan Garmendia Larrañagaren *Obra Osoak* argitaratzen Kutxa. Honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan zuen hasieratik. Hamargarren liburuki honetan, sona handiko antropologoaren azken lanen bilduma eta orain arte argitaratu gabeko beste zenbait testu editatu ditu Eusko Ikaskuntzak. *Euskal Herria. Etnografia, Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obras*

completas, Tomo 10 izenburupean, euskaraz eta gaztelerez dago idatzita liburua. Dena den, interneten ere ikus daiteke, ondorengo helbidean: www.euskomedia.org/garmendia.

Garaik asko aldatu direla erakusten dute tolosarrak, XIX. eta XX. mendeko langintza, usadio eta lexikoari buruz orain artean idatzi dituen 6.000 orrialde baino gehiagok. Denera, 60 lan monografiko eta 400 artikulua idatzi baititu.

Burdinola eta industriaurreko lan munduari buruzko gizakiaren inguruko ikerketak; historian boereroak izandako irudia, sakristua eta seronen irudiaren inguruko monografiak; Segurako festa eta tradizioak; Tolosako txistulari baten biografia eta herri honetako posta zerbitzua dira, Jesus Altuna arkeologoaren epilogoia duen liburukia osatzen dutenak. Duela zortzi urte ere, Altunak egin zion bere lanari hitzaurrea.

Duela ia mende erdi ekin zion Garmendia Larrañagak Euskal Herriko eta bereziki, Gipuzkoako eta Tolosako nahiz inguruetako

historia hurbila biltzeko lanari. Gertu-gertutik egindako azterketa hauen ondorio dira bere *Obra Osoak*.

Garmendia Larrañagaren hiztegi etnografikoa

600 orrialde baino gehiago dituen liburu berri honen zati garrantzitsua Garmendia Larrañagak bost hamarkadatan egindako lanean bildutako terminoen hiztegi ilustratu batek hartzen du: Juan Garmendia Larrañagaren Hiztegi etnografikoa.

Tolosarraren ikerketa eta dibulgazio lanen ardatz izan dira herri medikuntza, artisautza, jokoak, mitoak eta legendak, burdinolak, jaiak eta Inauteriak. Bere ustetan, azken hauek dira ondo ondo gorde diren usadioak. Hiztegi Etnografikoa 2003an argitaratu zuen Xabier Mendiguren Bereziarturekin elkarlanean. Tesi honekin egin zen antropologian doktore. Orain, argitaratu berri duen liburua bere azkena izango dela uste du Garmendiak, baina lanean jarraituko duela dio.

@ Bideoak. Urtean zehar, gai ezberdinen inguruan grabatutako 138 bideo ikusgai daude TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean. Sartu eta ikusi ea zure gustukorik ba ote dagoen.

www.tolosaldekohitza.info

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak... *Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Haurrek belazeak apainduz hasiko da Kultur Astea, etzi

Albiztur » Hilabete baten baitan izango dira ekitaldi guztiak, ekainaren 13ra arte; antzerkia eta paella jatea ez dira faltako.

ERREDAKZIOA

Maiatzan egotearekin batera, Albizturren Kultur Asteaz gozatze-ko garaia ere iritsi da. Udalak eta Arkaitz Elkartek elkarlanean antolatuta dute beste behin, aurten XIV. urteurrena izango dena eta etzi hasiko den egitaraua, gutxienez asteen behin ekitaldi bat eginik, ekainaren 13an bukatuko da. Esaterako, iaz berria eta arrakastatsua izan zen paella jatea errepikatuko dute.

Etzi, beraz, dute lehen kultur ekitaldia. Zehazki, Albizturko Udala eskolarekin elkarlanean Zuhaitzaren eta landarearen eguna antolatuta dute. 14:30ean erdiguneko auzoko belazeak apainduko



luz 150 lagun bildu ziren paella-jatean. HITZA

dituzte, bertan zuhaitzak landatuz. Horretaz gain, udaletxeko balkoian loreak jarriko dituzte. Segidan eta hau bukatuta, guraso elkartek merienda prestatuko du parte hartzen dutenentzat.

Haur eta ikasleek protagonistak izaten jarraituko dute hurrengo kultur ekitaldian ere. Izan ere,

ikasurtean zehar eskolan ikasten joan diren antzezlanajendaurrean aurkeztuko dute. Hau hilaren 22an egingo dute.

Hilaren 30ean paella jatea

Herriko II. Paella jatea izango da hilaren 30ean, larunbaterekin. Bazkaria frontoian egingo dute.

» EGITARAUA EKITALDIZ EKITALDI

Maiatzak 15, ostirala

■ 14:30. Zuhaitz eta landare eguna. Albizturko Herri Eskolako ikasleek zuhaixkak landatuko dituzte erdigunean eraiki berri den auzoaren berdegunean. Honez gain, udaletxeko balkoiak apainduko dituzte loreekin.
■ Ondoren. Merienda.

Maiatzak 22, ostirala

■ 19:00. Eskolako haurrek, ikasurtean zehar prestatutako antzerkia aurkeztuko dute udaletxeko areto nagusian.
Txikiue du izena.

Maiatzak 30, larunbata

■ 14:00. Paella-jatea. Frontoian izango da bazkaria. Txartelak alde zurreratik erosi behar dira Herriko Ostatuan edo udaletxean, bost euroren truke.
■ 18:00. *Gezurrezko printzea* an-

Txartelak 5 euro balioko du, baina oraindik ezin dira eskuratu. Albizturko Udalak honen berri emango du aurrerago. Iaz arrakastatsua izan zen, 150 lagun bilduz. Aurten ere Mari Karmen Otaegik prestatuko du paella.

tzerkia ikusgai izango da udaletxeko areto nagusian.

Ekainak 5, ostirala

■ 20:00. Erremonte jolari ezagunak joango dira kirol honen inguruan mintzatzeko. Erabiltzen duten materiala ere ekarriko dute, erakusteko.

Ekainak 6, larunbata

■ Adinekoentzat irteera. Saiaz Mankomunitateak antolatuta, Iparraldera egun guztioko txangoa egingo dute adinekoek.

Ekainak 13, larunbata

■ 19:00. Present Urkizu sommelieria (ardo-dastatzailea) joango da. Honek zenbait azalpen eman- go ditu eta pintxoekin batera, ardo ezberdinak dastatzeko aukera ere izango da. Ekitaldia Arkaitz elkar- tean izango da.

Urtero profesionalak egindako antzerki emanaldi bat izaten da Albizturren. Aurten *Gezurrezko printzea* antzezlanaz izango da. Edurne Agirrezabalak zuzendutakoa eta antzezburua da eta baka- rrizketan ariko da.



Bonbardinoren ixtorioak

ALTZO » Ino, Ino, Ino badator Bonbardino! antzezlanaz izan zen atzo Altzon, pilotalekuan. Ane Monnak Bonbardino umea izan zuen. Eskolara joateko arropa ez zuen oso gustuko Bonbardinok, baina hala ere horrela

joan zen ikastolara: bere ikasgelako neska ergel batek, (Lady Pinpirina), bihurrikeriak besterik ez zizkion egiten. Baina boligrafo magikoa aurkitu zuen... Dena oso era koloretsuan eta musika alaiatz lagunduta. N. URIBIZU

Transportes Lakunzak mailaz igotzea lortu du

Areto futbola » Partida baten faltan igoera eskuratu du taldeak; azken neurketan ere hiru puntuak lortu nahi dituzte.

ERREDAKZIOA

Partida baten faltan, matematikoki Transportes Lakunza areto futbol talde billabonatarrek igoera eskuratu du. Beraz, datorren denboraldian Nacional B mailan ariko dira. Clinica Dental Aldaz talde lasartearri bere etxean 3-5 irabazi zion azkeneko Villabonako taldeak, momentoko liderrari. Beraz, datorren denboraldian Nacional B mailan ariko dira eta, bestek beste, Tolosako Laskorain taldearen aurkako derbiak ikusteko aukera izango da.

Bi taldeetako atezainek lan handia izan zuten baloiak atean ez sartzeko. 6. minutuan Etxeberriak gola sartu zuen arte. Ibonek bigarrena lortu zuen, lasartearren defentsa huts egitez baliatuz.

Atsedendiaren ondoren beste gol guztiak sartu zituzten, bai lasartearrek eta baita billabonatarrek ere. Hasi bezain laster Lasarteko lehen gola sartu zuten. Baina hala ere, Inakiren taldeak tinko eutsi zion defentsa lanari eta jokamolde onari. Honela Villabonako en hirugarren gola iritsi zen, baina gutxirako iraun zuen pozak,

2-3koa berehala iritsi baitzen. 10 minutu falta ziren partidaren bukaerarik gabe botatzeko aukera zuten Lakunza taldekoek. Ezin zen hanka sartu. Villabonako en laugarren gola iritsi zen horrela.

Garaipena merezitakoa izan zen, baina ez zen horrela bukatu. Izan ere, kornere batean Lasarteko gol bat sartu zuten, euren azkena, alegia. Markagailuan 3-4 jartzen zuten. Partida bukatzean, Lasarteko bi jokalariren kanporaketa etorri zen. Villabonako en futbola ordurarte ona izan bazen, hemendik aurrera Lasarteko en gain-gai- netik aritu ziren, etxeko taldea mendea hartuta. Hautsiren gola iritsi zen partida bukatu baino 3 minutu lehenago (partidako bere bigarrena).

Datorren jardunaldian ere hiru puntuen bila joango dira

Datorren jardunaldian Transportes Lakunza Beti Arin taldearen aurka aritu beharko da, kasu hone- tan Olaederra kiroldegian. Elkar- rren artean lehiatuko dira 18:00etan hasita, datorren larun- batean. Igo badira ere, sailkapene- an lehen postuan bukatzeko azken ahalagin bat egingo dute, horrela bi gauza ospatu ahal izateko. Talde- arren izenean, «denboraldi osoan zehar gu ikustera, animatza eta laguntzera joan diren ikusle horiek eskertu nahi genituzke».



sarrerak

HITZAK 2 harpidedunentzat **bina sarrera** ditu



Beasaingo **GARAGARDO AZOKA**n afaltzeko
(Maiatzak 14, 15, 16 eta 17)

sarrerak eskuratzeko: **943-65 56 95**
harpidedun kodea eskura duzula

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Saridunen izenak Maiatzak 14ko egunkarian.

TOLOSALDEKO
TXOKOR hitza



'Egunkaria'-ko bi auziak salatzeko elkarretaratzea

KOMUNIKABIDEAK • Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendik eta Iñaki Uriak Espainiako Auzitegi Nazionalera joan behar izan zuten atzo berriro, *Egunkaria*ko auzi ekonomikoa dela-eta deklaratzera. Hain zuzen, *Egunkariari* buruzko bi auziak salatzeko, hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten atzo goizean Andoainean (Gipuzkoa), Martin Ugalde kultur parkean, *Egunkaria libre!* lelopean. HITZA



Tolosako Udal Musika Eskolako bisita Andoainera

KULTURA • Pasa den apirilaren 29an, Tolosako Udal Musika Eskolako ikasleek, Andoaingo Musika Eskolakoekin elkartrukea egin zuten. Ekitaldi hau, Bastero Kulturgunean burutu zuten. Bertan, Andoaingo Txiki-band eta Soka Taldea entzuteko aukera izan zuten bertaratuek. Tolosatik dultzaina Taldeak, abesbatzak, akordeoi orkestrak eta orkestra sinfoniko txikiak parte hartu zuten. Maiatzaren 28an, berriz, tolosarrek jasoko dute Andoaingoen bisita izango. HITZA

Laburrak

Jai batzordearen bilera bihar, sanjoanei begira

TOLOSA • San Joan jaiak antolatzeneko jai batzordeak bilera egingo du bihar 19:30ean Tolosako Kultur Etxean. Bilera irekia izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Bordondantzako entsegua izango da bihar Usabalen

TOLOSA • Udaberri dantza taldea Bordondantzako prestaketekin hasi da dagoeneko. Hurrengo entsegua bihar 20:30ean izango da, Usabal kiroldegian.

Kultur Astean heldu nahiz gazteentzat aukera

IRURA • Kultur Asteko ekitaldiekin jarraitzen dute Iruran. Gaur ere ekitaldi ugari izango dira: 17:00etan, berriz, Gaztelekuan logoa margotuko dute, 17:30etik aurrera *Sendabelarrak atzo, gaur eta bihar* ikastaroa egingo dute plaza-ko areto nagusian. Bihar, berriz, 16:45ean jubilatuen ibilaldi neurtua izango da herriko kaleetan zehar, ondoren, sari-banaketa eta luntxa ere egingo dituzte Zaharren Biltokian, 17:30ean frontoian patinaje ikastaroa haur eta gazteentzat.

Zuntz bidezko TRIOa   



Eraman, urtebeterako, 70 kanaleko TB Digitala.

Dúoaren prezio berean, eramán Zuntz bidezko TRIOa.*

Dúo  +  6 M + Llamada

Euskaltelen Zuntz bidezko TRIOa*  +  +  12 M + Oros + 70 TB kanal

29,7 €/hil. UNTEBETE PAKO

Badaño telebista hobe bat, eta guztion eskura dago.

   

zuntzOptikoa **Deitu 1717** telefono-zendabatu, edo zuz. Euskaltelen saltaili bidez.

Sotzagen honen 2009ko maiatzaren 31ko aurreko komertzioartez balio du. Zuntz bidezko 12 M ko TRIOA: 29,66 €/hil. 24 hilabete kanerako konpromisoa. Auzentzat bizi ematen gero, 200 € baino onaraztu behar dira. BEZa gabe (% 5, 16)

'Munduan zehar bidaiatuz', bidaiaren astea antolatuta dute

Ibarra » Jada ikusi daitekeen argazki-erakusketa eta bost ikus-entzunezko eskainiko dituzte Kultur Etxean.

REBEKA CALVO

Ibarrako Kultura eta Gazteria Sailak *Munduan zehar bidaiatuz* bidaiaren astea antolatuta du. Argazki-erakusketa batekin eman zioten hasiera pasa den ostiralean eta maiatzaren 22ra arte luzatuko da.

«Jardunaldi hauekin, bidaiari euskaldunen esperientziak ezagutzeko aukera bikaina izateaz gain, errealitate desberdinetara hurbiltzeko eta herrialde zein kultura ezbedinen berri jasotzeko parada izango da», diote saileko ardura-dunek.

Argazki-erakusketa

Lehen ekitaldia, hortaz, argazki-erakusketa bat da. Urtzi Uriarte dimatarraren (Bizkaia) argazkiak biltzen dituen *Te Pito O Te Henua* (*Munduan zehar bidaiatuz*) erakusketa da. Bertan, espeleologoak pasa den otsailean Rapa Nui (Pazko Irla) egindako bidaiaren 30 bat argazki ikusi daitezke. «Urtero beraien kultura aldarrikatzeko egiten duten jaialdiko, eguneroko pasarteetako eta paisaietako argazkiak bildu ditut», dio Uriartek. Ez da dimatarra bertara joaten den lehen aldia, aurrekoetan Alfonso Antxia Espeologia Zientzia Elkarteak kidea izaki bi espedizioetan ere hartu zuen parte, baina azken bidaiaren honetan «turista» modura joan zen Igor Zuazo lagunarekin batera. «Kon-



Urtzi Zuazo eta Unai Uriarte erakusketako argazki bat dutela. R. CALVO

traste handia dago beraien eta gure artean; askos lasaia goak dira eta bizimodua ere beste modu batera daramate, egunean egunekoak egiten dute, asko jota bi egunerako aurreikuspenarekin; arrantzatuz bazkaltzeko, ondarrak hurrengo egunean saldu...», argitu du Uriartek. Irlako biztanleek asko zaintzen dute euren ingurua. «babe-rako sentimendu handia dute eta asko zaintzen dute guztia, beraiek darabilten—Rapa Nui harrotasuna delako— hori aldarrikatzen dute beti».

Kanpotarrak ondo hartzen al dituzten galdetuta Uriartek oso argi du: «Orokorrean bai, Txilekoak gutxiago irla hartuta dutelako, eta gainera beraiek esaten dutenez txiletarrak joaten direnean ez dira denbora gutxirako joaten, luzer-

ko baizik eta beraientzat horrek kalte handiagoa suposatzen du euren kulturari, ingurugiroan...».

Ikus-entzunezkoak

Munduan zehar bidaiatuz jardunaldien baitan ikus-entzunezko ugari ere eskainiko dituzte 19:30ean Benito Izagirre kultur etxean.

Ama-Afrika ikusteko aukera izango da; 40 hilabeteetan Hegoamerikan barna izandako esperientziak egindako *Miyuki, tandemean Hegoameriketan* barrena ere eskainiko dute; *Iran: topikoen aurkako bidai* ere izango da; *Vietnam: iparraldeko lurak* da beste ikus-entzunezko bat; eta bukatzeko Angel Cuerdoren *Jordania zaldiz, Lawrence-aren arrastoari segika* ikusteko aukera ere izango da.

Udalak bi kontu ireki ditu Tichla laguntzeko

Ibarra » Saharako herriko familia behartsuenei dirua bidali nahi diete; elikagaiak eta sendagaiak behar dituzte, besteak beste.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak bi kontu ireki ditu Saharako Tichla herriko familia behartsuenei laguntza ekonomiko eman ahal izateko. Saharako herri hau Ibarrarekin senidetuta dago 1998ko apirilaz geroztik eta Udalak esan duenez «inguruko beste herri batzuen antzera, premiazko esku-hartze humanitario baten beharrea aurkitzen da. Hori dela eta, Udalak ekarpen boluntario bat egin dezaten gonbidatu nahi ditu ibartarrak, arazorik larrienak dituzten pertsonen bizibaldintzak hobetzeko helburuarekin», gaineratu du.

Saharara eginiko bisita

Ibarrako alkatea den Txelo Romeo, udal ordezkariekin batera, orain gutxi izan zen Tichlan eta bertako alkatearekin ere bildu zen. Ibarrako Udalak hartu zuen konpromisoetako bat «Udalerriko bizilagunak eremu honek laguntza

solidarioa eskuratzeko duen premiarekin inguruan kontzientziazte» izan zelarik. Izan ere, Tichlako biztanleek gero eta elikagai gutxiago jasotzen dituzte eta osasun-arreta ere, pixkanaka, gutxitzen ari da.

Saharako herriko Mohamed Lagdaf alkateak berriz, Tichlako biztanleen gabeziak aztertzeko arduratu zuen horrela, arazorik larrienak zituzten familien zerrenda bat egin ahal izateko. Zerrenda hau, ondoren, Ibarrako Udalerria bidali zuen.

Kutxa eta Euskadiko Kutxa

Hauek dira Ibarrako Udalak ireki dituen kontuetako zenbakiak: 2101 00 43 11 0012355137 (Kutxa) eta 3035 0141 80 1410 027920 (Euskadiko Kutxa).

Gobernu-batzordea izango da kontu hauen jarraipena egiteko arduraduna eta informazio puntuala emango zaie kontu-ikuskaritzari nahiz Euskadiko Fronte Polisarioari lortutako diru guztiaren garrantasuna bermatzeko. Kopuru hau Tichlako familia behartsuenei oinarritzko beharrek estaltzeko erabiliko da, hala nola, elikagaiak, sendagaiak eta gizarte-azpigituren hobekuntza.



Aljibea berritzeko lanetan ari dira

VILLABONA » Villabonako Udalak Subijana etxeko garai bateko aljibea berritzeko nahia agertu du. Ehun fabrika izan zeneko eraikinaren ur depositu zaharra herritarrek erabili ahal izateko balio anitzeko gela bihurtu nahi dute eta bertan erakusketak jartzeko aukera aurreikusitua dute eta baita emanaldi txikiak egiteko eszenatoki bat jartzera ere. R. CALVO

» EGITARAUA

Maitzak 22ra arte

■ **Argazki-erakusketa.** Urtzi Uriarteren Pazko Irlari buruzko *Te Pito O Te Henua* argazki-erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. (10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara)

Maitzak 18, astelehena

■ **19:30.** Onditz Jauregi eta Luisa Monteceloren *Ama-Afrika* ikus-entzunezkoak. Kultur Etxean.

Maitzak 19, asteartea

■ **19:30.** Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okaberen *Eneko eta Miyuki, tandemean Hegoameriketan* barrena ikus-entzunezkoak. Kultur Etxean.

Maitzak 20, asteazkena

■ **19:30.** Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen *Iran: Topikoen aurkako bidai* ikus-entzunezkoak. Kultur Etxean.

Maitzak 22, ostirala

■ **19:30.** Egoitz Etxenautia eta Urtzi Uriarteren *Vietnam: Iparraldeko lurak* ikus-entzunezkoak. Kultur Etxean.

Maitzak 25, astelehena

■ **19:30.** Kutxa Gizarte Ekintzakek babestutako Angel Cuerto tolosarraren *Jordania zaldiz, Lawrence-aren arrastoari segika* ikus-entzunezkoak. Kultur Etxean.

Hilberriak

INAXI ARRUTI URRESTARAZU (SIGFRIDO KOCH BENGOTXEAREN ALARGUNA)



DONOSTIAN
2009ko
maiatzaren 13a

Atzo hil zen, Lizarran. Sortu zinen argira itzuli lizar, zeru, arima oroz gaindi, ta-su-garretan biziaz blaiturko maiteari muxu eta zorion ugari Betiko maite zaitugu Zure sendia

Haren aldeko hileta elizkizuna BIHAR OSTEGUNEAN, arratsaldeko 19:00ETAN, Parte Zaharreko SAN BIZENTE elizan

INAXI ARRUTI URRESTARAZU



DONOSTIA
2009ko maiatzaren 13a

Bere biloba Nagore Koch (Inutxuloko Hitzako langilea) eta familia osoaren saminarekin bat egin nahi dugu momentu gogor honetan.

Inutxuloko Hitzako lan taldea

JOSE MARI IRIBAR LARRAÑAGA

Atzo hil zen, 84 urte zituela



Gaur asteazkena, hilak 13, arratsaldeko 18:30ean, Getariako Salbatore parrokia elizan egingo da bere aldeko hileta. Aldez aurretik, mila esker guztiei.

Senide guztien izenean

GETARIA
2009ko maiatzaren
13a

E Elkarrizketa

MARZE SATRUSTEGI LABen ordezkaria Sarriopapel enpresan

«Espero dezagun hau ez izatea amaiera bat, hasiera bat baizik»

Leitza » Eskualdeko enpresa nagusian, Sarriopapelen, Greba Orokorraren inguruan gaur egingo dituzte langileen batzarrak: goizean, eguerdian eta iluntzean.

ASIER IMAZ

Maiatzak 21eko Greba Orokorra babestuz ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuak, Hego Euskal Herriko 800 Enpresa Batzordearen edo Komitieren babesa aurkeztu zuten astelehenean. Horien artean Leitza Sarriopapel-eko Enpresa Batzordea aurkitzen da. Marze Satrustegi (Alli, 1955) LABen delegatua eta Enpresa Batzordeko kidea da Leitza lantegian.

Greba deialdi bat dagoenean, erabakiak nola hartzen dira Sarriopapelen?

Horrelako deialdi bat dagoenean, normala den bezala, deialdi hori bultzatzen duten sail sindikalak propaganda egiten hasten dira, langilegoa sentsibilizatzeko. Sarrioren zehazki bi sail sindikal daude: LAB eta ELA. Biek greba bultzatzen dugunez normaltasunez joan da. Apirilaren 22an Enpresa Batzordearen edo komitearen bileran egin genuen eta han greba hau bultzatzea erabaki genuen.

Zergatik?

Bultzatzeko arrazoi asko daude, deialdia egin duten erakunde sindikalak esaten ari diren bezala. Arrazoi horien artean badu Sarrioren berezitasun bat, multinazional bezala, izan ere krisi hau barruko egokipen batzuk egiteko erabilzen ari dira. Ez da ahaztu behar hemen bertan, Zornotzan, Sarrioren lantegi bat itxi dutela. Estatu mailan Algezirasekoa ere itxi egin zuten. Pentsa, gauzak ondo joanda ere langileok bizi baldintzei eusteko borroka, greba,... egin behar izaten dugu eta egoera txartzen denean berriz langileak kalera. Hau gehiegizkoa dela ikusten dugu. Instituzioek nolabait hor zerbait egin beharra daukate: ez ugazabari edo patronalari diru publikoak eman bakarrik; langilegoak enplegu duin bat izan dezan edota bere beharrei erantzuteko. Horregatik bultzatzen dugu maiatzaren 21eko greba.

Lehen aipatu duzun barne propaganda egiten hasi zinetenean, zein izan zen langilegoaren harreara?

Langileekin bihar (gaur) daukagu batzarrak hain zuzen ere. Hemen jendeak txandatan lan egiten duenez hiru batzar ditugu: goize-



ASIER IMAZ

an, eguerdian eta iluntzean. Egia da hasiera batean horrelako deialdi bat barneratzea kostatu egingo dela, baina espero dugu Enpresa Batzordeak onartu bezala, langilegoaren gehiengoak greba aurrera ateratzeko babesa ematea.

Nola funtzionatzen du langileen batzarrak?

Hasieran, sail sindikal bakoitzak eta komiteak arrazoiak plazaratuko ditu. Ondoren parte hartu nahi duenak hitz egingo du. Azkenik, batzar bakoitzaren amaieran bozketak egingo dira. Gure ustez alde zuzeneko greba arrakastatsua izaten ari da, gaiaren inguruan hitz egiten delako. Propaganda dezenteko dago tabloietan: bai LABena, bai ELArena eta baita Komitearena ere, berak ere hori bultzatzeko erabakia hartu baitu. Arestian arrazoiaren inguruan esan dugun bezala, hemen gauzak ondo doazenean langileak bizi baldintzei eusteko borroka egin behar izaten dugu. Eta adibide geu izan gara, orain dela urte batzuk greba nahiko luzea egin behar izan genuen, gure bizi baldintzak mantendu eta hobetzeko. Eta orain egoera txartzen denean diru publiko guztia patronalaren eskuetara. Hori ez dago ondo. Orea bat egon behar dela uste dugu. Badaesara bat, nire uste zue honetarako oso egokia dena: inork ez duela ezer oparitzen, eta langileoi gutxiago. Ho-

rregatik presionatu beharra daukagu bai instituzioak eta baita patronala ere, gehiegieria horiek ezin daitezkeelako aurrera eramana.

ELA eta LAB elkarrekin 98ko greban irten ziren azken aldiz kalera. Orain berriro irtengo dira. Enpresa mailan nabaritzen al duzue urrats hau?

Eragina beti nabaritzen da. Langilearen eta patronalaren arteko harremana txingurri eta elefante baten artekoa bezala da hemen. Zer edo zer lortu nahi baldin badugu aurretik greba arrakastatsua izateko, 35 orduko greba hura elkarrekin egin zen. Baina hori gertatu zen, proiektio gehiagorik gabe. Une honetan espero dezagun hau ez izatea amaiera bat, hasiera bat baizik. Eta jarraipena edukitzea.

Maiatzak 21ean hainbat mobilizazio egongo dira herrian.

Greba honekin sektore guztietara iritsi nahi da eta uste dugu hemen inguruan, Leitza eta inguruetako herrietan, bere eragina izango duela. Hiriburuetako manifestazioak, elkartzeak... egongo dira. Arratsaldean berriz Leitza manifestazioa egingo da.

Euskal Autonomia Erkidegoan batzuk «Patxi Lopez-en aurkako

greba» aipatzen zuten lehenik, orain «Batasunak bultzatua» dela dionik ere bada.

Betikoa. Bai Nafarroan eta bai Baskongadetan lan harremanen eskuena oso urria da, oso motza. Zentzu horretan badaude hainbat eragile sindikal, UGT eta CCOO, estatu guztiko esparruan mugitzen direnak. Nolabait dena hornitzen dute. Euskal Herrian bertako eragile sindikalak bat egiteko horrelako deialdi bat egitea, horrelako programarekin eta estatu mailan langilegoaren egoera nolako den ikusita, eurak ipurdia agerian dutela gelditzen dira. Bilerak asko egin dituzte gobernuarekin eta patronalarekin, baina non daude emaitzak? %30a baino gehiago behin behineko kontratuarekin, izugarriko langile pila langabezura eta horren aurrean zer? Erantzuna eman behar da.

Aitzakia bezala ikusten duzu, beraz.

Bai. Zerbait egin nahi denean beti ateratzen dute aitzakiaren bat. Batzuk edo besteek, baina beti zapuztu nahian. Oroitzen baldin bagara lehen, orain dela urte batzuk, zerbait taxuzkoa planteatzen baldin bazen komunistak edota gorriak ziren. Baina egungo errealitatea oso gogorra eta oso gordina da eta horri erantzun egin behar zaio. Guri gustatuko litzaiguke deialdi honek estatuko beste leku batzuetan isladatu edukitzea, jarraipen bat izatea.

Maiatzak 21a jarraipen bat den bezala?

Greba deialdia ez da Euskal Herrian bakarrik egin. Frantzia bi edo hiru greba egin dituzte; Portugalen, Grezian, Belgikan... egoera gero eta estuago dago, gero eta izorratuago. Sindikatuak horri erantzuteko ez baldin badaude zertarako daude? Administrazioetik xoxak jasotzeko bakarrik? Horretarako ez dugu sindikaturik behar.

Grebara deitu duten sindikatuak agerraldia egin zuten aste honen hasieran. Hego Euskal Herriko 800 Enpresa Batzorde ingururen babesa jaso dutela zabaldu zuten.

Badirudi pixkanaka toki askotan adostasunak bilzen ari direla. Espero dezagun maiatzaren 21a egun oso garrantzitsua izatea, baina arestian aipatu dugun bezala, espero dezagun dena egun horretan bakarrik ez gelditzea. Nire ustez helburua ez da greba egitea, egun horretako aldarrikapenak lortzea baizik: ahal den mailan langileon egoera hobetzeko esan beharko genuke, baina denbora batetik honako bilakaera ikusita, maldan behera goazela ikusita, hori gelditzea gutxienez.

L Laburrak

Olazabalek Tolosan jokatu du finalerdia

ARESO » Mikel Olazabalek Bigarren Mailako Banakako Txapelketan Mikel Beroizen aurka jokatu du larunbatean, hilaren 16ean, Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdia 16:30ean hasiko da Apezetxea eta Cabrerizo II.aren arteko lehiarekin. Ondoren jokatu du Olazabalek Txapelketako finalerdia. Amaitzeko, Capellan-Lasa III.a eta Mikel Goñi-Eulata ikusteko aukera egongo da. Bigarren Mailako beste finalerdia Jokin Argotek eta Asier Arrutik jokatu dute etzi.

Iritsi da eguna, gaur Pirritx, Porrotx eta Marimotots

LEITZA » Ereltako Denok Bat Guraso Elkarteak eta Aurrera Kirol Elkarteak, Leitza Udalaren laguntzarekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak ekarriko dituzte gaur Leitza kiroldegira. Piratak ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta jende uholde handia hurbilduko da pailazoak eta euren lagunak ikustera. 2007, 2008 eta 2009 urteetan jaiotako haurtxoek ikuskizuna doan ikusteko aukera edukiko dute.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

- OSASUNA.**
- Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 943 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 943 692423
- Baliarrain.** Medikua: 943 889003
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 943 683361
- Bidegoian.** Medikua: 943 681134
- Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329
- Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Orendain.** Medikua: 943 655595
- Orexa.** Medikua: 943 682228
- Tolosa.**
- Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111
- San Esteban:** 943 006800
- Gernikako arbol:** 943 006900
- Amarozko dispen:** 943 672637
- Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
- DYA:** 943 672536
- Gurutze Gorria:** 943 674888
- Villabona.** Anbulat.: 943 006970
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930
- GARRAIOAK.**
- Renfe:** 902 24 02 02
- Donostiako autobusa:** 943 361740
- Tolosaldeko bus:** 943 650621
- Leitzaran autob.**: 948 221015
- Taxia:** 943 670420
- Taxia (Leitza):** 608 873016
- BESTERIK.**
- Ertzaintza:** 943 538820
- Tolosa-Udalatzaingoa:** 943 675858
- Tolargi:** 943 650016
- Iurrumendi egoitza:** 943 670325
- Tolosa gasa:** 943 675320
- Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldia: 687 410 032. ibarraldia@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldeia: 687 410 118. leitzaldeia@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Berrobi.** XIX. Kultur Astea. 18:30ean sukaldaritza erakusketa Berrobiko Iriarte jatetxeko Felix Belauntzarren sukaldariarekin Bide-Ona elkartearen. Platerak zozketatuko dituzte eta haurtzandegi zerbitzua egongo da.
■ **Irura.** 08:30ean herriko jubilatuen Guardiarra irteera, 17:00etan Gaztelekuaren logoa pintatzea, 17:30ean *Sendabelarrak atzo, gaur eta bihar* ikastaroa plazako areto nagusian.

Hitzaldia

■ **Ibarra.** Gorreria aurrikusteari buruzko hitzaldia Bizi Nahi jubilatuek artean 17:00etatik 18:00etara.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Veleta-Aitz Orratz elkartearen 75. urtemuga dela eta, argazki eta azken 25 urteetako Inauteri mozerroen erakusketa Kultur Etxean.

Zinema

■ **Villabona.** *Franklin eta lakuko atxorra* haurrentzako filma Gurea aretoan 11:00etan.

Deialdiak

■ **Alkiza** Benito Goenagak txondorra egin du Ikili baserrian, jendeak ikusteko. Bisitak 943 690235 telefono zenbakira deituta egin daitezke.
■ **Tolosa.** 7 eta 15 urte arteko gazteentzako pintura lehiaketa elkarbizitzaz. Lanak hilaren 25etik 29ra entregatu behar dira Kultur Etxean edo Sükrü Karacusen estudioan (Zabalarreta 5).
■ **Tolosa.** Gipuzkoako Arnuarain Arrantza Txapelketa eta barbo txapelketa Ori ibaiaren kotoan datorren igandean benjamin, alebin eta infantil mailetan. Izenematea, Usabal kiroldegian 19:00etatik 21:00etara. Informazioa, 630 529531 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

P Publikerreportajea: LARREA plater prestatuak

Plater prestatuetan maisuak

Larrea plater prestatuak, kalitatezko plater prestatuak egiten ditu Tolosan (Iurrea-mendi auzoa 15, behe) 2005eko urritik. Dendarekin batera, jate-txea ere badu Larreak eta eskaintza bereziak egiten ditu. Izaskun eta Alazne Larrea Hernialdeko ahizpak arduratzen dira negozioaz.

Produktu sorta zabala

Produktuen elaborazioa erabat artisaua da eta kontserbante eta koloratzailerik gabeko lehen mailako osagaiak bakarrik erabiltzen dituzte.

Halaber, produktu guztiak ontzi espeziako batzuetan aurkezten dituzte Larrean, mikrouhinean sartu ahalizateko, jaki onenak erostasun handiz gozatzeko. Produktuen zerrenda oso luzea da. Hasierako plater bezala, errusiar entsaladarentzako prestakina, olagarroa, piper beteak (bakailu edo haragia), frijituak, itsaski krema,

barazki menestra, onttoen budina, legatz eta ganba budina, haragi lasagna, espinakazko kaneloiak, txangurro krepak... dituzte.

Bigarren platerentzat arrain nahiz haragi aukera handia dute. Arrainetan, esaterako, ajoarriero bakailaoa, pil-pilean, saltsa berdean, txapiroak tintan eta txangurroz beteriko legatza dituzte. Haragietan, berriz, tripakiak, mingaina saltsan, albondigak tomatearekin edo saltsan, muturrak eta biribilkia saltsan dituzte.

Patatazko purea, roquefort eta gezamin saltsak ere osagarri bezala salgai izaten dituzte.

Eta otorduari amaiera ona emateko postreak ere badituzte salgai: flan tarta, natillak, arroz-esnea, trufa tarta, esne frijitua, tiramisua, arrautz-flana eta ijito-besoa.

Jatetxean ere kalitatea nagusi eta berezitasuna, arraina

Dendan dituzten produktuez gain, eskaintza bereziak ere egiten di-

tuzte, taldeentzako menu bereziak, sozietateentzako menuak eta ospakizunentzako menuak, besteak beste. Izaskun Larreak aipatzen duenez, «orain, herriko jaiak datozten sasoi honetan, bazkari eta afari haurrentzat eskaintza zabala dugu, eta prezio guztietakoak, gainera».

Menuak ere termoetan eramateko aukera dago, jateko prest dardelarik.

Larrean bost mahaiko jatetxe txiki eta eroso bat ere badute. «Enpresa bilerak egiteko oso egokia da, baita ospakizun txikiak egiteko ere».

Leku oso lasaia da eta Wi-Fi sistemarekin hornituta dago, «lan bileretako egokia eta ospakizunetarako ere aproposa: gainera jatetxea itxi dezakegu taldeentzat», zehazten du Izaskunek.

Auzo lasai batean dago kokaturik eta haur parke bat dago, umeeek jolas dezaten.

Denboraldiko produktuak lantzen dituzte bertan, eta Ondarruati egunean ekarritako arraina, eta antxume errekiak dira euren berezitasunak. Jatetxea eguerdian izaten da zabalik.

Udari begira ere, eskaintza berriak

Eguraldi ona ganean dugu eta Larrean erantzuna eman nahi diote. Hala, 2 euroren truke, sandwitxak ere jarri dituzte aukeran, eramateko errazak, igerilekura adibidez.

Bezeroari zerbitzu ona emate aldera, ordutegi zabala dute Larrean. Asteaz zehar egun osoan, 10:00etatik 20:30era zabaltzen dituzte ateak eta igandeetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara.



Izaskun eta Alazne Larrea ahizpak dira Larreako arduradunak. I.T.

A Agurrak



Bur askoan!

Ugaitz Mujika. Gaur 5 urte, Zorionak! Meriendan opari pila-pila ireki eta asko jolastu! Ondo pasa.

agurrak urtebetetzeak urrezko ezteiak ezkontzak jaioberriak jaunartzeak...



saridunak

◦ Karmen Iraeta (Tolosa) ◦ Inazio Agirre (Tolosa)
◦ Bernabe Azpiroz (Leitza)

Pirritx, Porrotx eta MariMotots

Maiatzak 16 ◦ Larunbata ◦ 16:30ean ◦ Donostiako Gasca kiroldegian

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue



sarrerak

